

HELMUGA / META: ELGOIBAR



Elgoibar 1328. zenb.  
XXXI. urtea - 2024/05/17

ELGOIBAR  
TAMIENTO



# Jai handia izan da




BODEGA  
QUINTIN

25







## *Idoia Alonso Urrejola*

2024ko maiatzaren 11n hil zen, 58 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Maitasunez,  
beti gure bihotzetan.***

Etxeakoak



I. URTEURRENA

## *Lorea Sasiain Garate*

2023ko maiatzaren 18an hil zen, 64 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 19an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Laster arte ezpainetan,  
utzi gaituzu penatan.  
Orain gure ametsetan,  
bizirik zaude benetan,  
zeruko izarretan.***

Etxeakoak



II. URTEURRENA

## *Ana Maria Lizaso Lopetegi*

2022ko maiatzaren 16an hil zen. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 19an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Ez adiorik, laster arte baizik.***

Etxeakoak



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Maialen Sanchez

Idazlea

## Gauza garrantzitsuen ahultasuna



***"Nire ustez, gizateriak  
besteen sentimenduekiko  
sentsibitatea eta  
errespetua galdu ditu"***

**D**uela gutxi nire bizitzako gauzarik garrantzitsuenen eta ez hain garrantzitsuen zerrenda egiteko eskatu zidaten. Hasieran ez nekien nondik hasi; gauza garrantzitsuen zerrendan gauza materialek lekua irabazten zuten eta benetan axola duenari ez nion bere tokia ematen. Orduan ulertu nuen zerbait ez zebilela ondo nire buruan. Baina, nire buruan bakarrik?

Nire ustez, gizateriak, gizarte honek bultzatuta, besteak beste, besteen sentimenduekiko sentsibitatea eta errespetua galdu ditu; berdin zaigu gauzak nola lortu, baldin itxaron beharrik ez badugu eta azkar bada, nahiz eta horrek hurkoa zapaltzera eraman.

Ni baino nagusiagoak diren pertsonak beren iraganaz berbetan entzuten ditudanean nostalgiatik eta penatik egiten dutela ohartzen naiz. Pertsona desatseginekin edo tratatzeko zailak direnekin topo egin dutela esaten dute, baina horrek betiko kontuak dira. Gaur egun norbait atsegina bada eta errespetua eta asmo onak erakusten baditu, lehenengo eta behin, ez diogu sinisten eta gero erne jartzen gara. Halakotan mesfidantza jokoan sortzen da, eta harremanak eskasten dira.

Gizateriak jasan zuen geldialdiaren ondoren, guztiok uste izan genuen gizakia aldatu egingo zela eta pertsona hobeagoak egingo ginela; ados gaude guztiz kontrakoa izan dela, ez baikara jabetu gauza garrantzitsuen hauskortasunaz, eta barkatu orokortzeagatik, baina sentsazio orokor batek eraman nau hausnarketa hau egitera. Ez dakit zein den irtenbidea, baina uste dut aldaketa guztiak norberarengandik hasten direla. Denbora bat hartu beharko genuke, eta gure gauza garrantzitsuen zerrenda zerk bete beharko lukeen pentsatu. Agian horrek lagunduko digu hain berekoiak ez izatera.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

### Eskerrik asko

Elgoibarrek, beste behin ere, genero-berdintasuna sustatzeko eta kultura kirolean txertatzeko erreferente dela erakutsi du, eta arrakasta handiz hartu ditu udalerrri osoan oihartzuna izan duten hainbat ekitaldi. Joan den asteburuan, kirola eta kultura uztartu zituzten jardueren agertokia izan zen Elgoibar, berdintasunarekiko konpromisoa eta emakumeen kirolaren sustapena azpimarratuz.

2024ko Women Itzuliaren lehen etapatik hasi eta Txitxibilaldiak-i Morkaiko Egunean egindako merezitako omenaldira arte, ekitaldi bakoitza elkarte- eta lankidetzaz-espirtuaren isla izan zen, eta diziplina guztietan emakumeen parte-hartzea babesten zuen. Gainera, Real Sociedad B eta Alavesen arteko partidak jende asko erakarri zuen, Udalaren ikuspegia sendotuz: kirol inklusiboa eta guztiontzako irisgarria.

Ekitaldi horien arrakasta ezinezkoa izango zen kirol-elkarte eta -klub guztien laguntzarik eta ahalegin nekazekin gabe, bai eta boluntarioen laguntzarik gabe ere, jarduera bakoitza modu ezin hobean egitea ahalbidetu baitute. Berotasuna eta konpromisoa dira lorpen horien eta berdintasunezko gizarte baterantz aurrera egitearen oinarria.

Udalak bereziki eskerrak eman nahi dizkie elgoibartar guztiei parte hartzeagatik eta programatutako jarduera guztietan buru-belarri aritzeagatik.

Elgoibarko Udalak ildo horretan lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du, emakumeen kirol-jarduerak sustatuz eta elkarte-huna bultzatuz kirolean genero-berdintasuna

elgoibartar gizartearen garapenerako funtsezko zutabeak izango direla bermatuz.

**Elgoibarko Udala**

### Giza eskubideak errespetatzeko eskaera

Pablo Gonzalez kazetaria bisitatzeko aukera izan dute haren bikotekide Oihana Goirienak, seme nagusiak eta bi lagunek duela egun gutxi. Berritasun handia dela adierazi dute, orain arte, senideek, abokatuek eta Espainiak Polonian duen kontsulak baino ezin izan baitzuten bisitatu. Bisitak bi ordu iraun zuen, eta Poloniako zerbitzu sekretuen zaintzapean egin zuten. Gogoan izan Pablo Gonzalez kazetaria 2022an Poloniako zerbitzu sekretuek atxilotu zutela espioitza lana egiteaz akusatuta. Gonzalezen senideek behin baino gehiagotan salatu dute kazetaria inkomunikatuta dagoela Poloniako Radom segurtasun handiko espetxean, eta zailtasun handiak dituela telefono deiak egiteko eta bisitak jasotzeko.

Goirienak eta Gonzalezek hiru aldiz baino ezin izan dute elkar ikusi bi urte eta hiru hilabeteko epean. Semeak, berriz, bigarren aldiz ikusi du aita hura espetxeratu zutenetik. Osasunez ondo eta itxaropentsu dagoela jakinarazi dute, eta kazetariak espero duela Poloniako agintariek behingoz haren kontrako akusazioak zehaztea, horren aurrean bere burua defendatu ahal izateko.

Senideek zer eskatzen dute? Epaietarako data ahalik eta azkarren jartzea, eta epaiketa bidezko bat izatea, eta hori iritsi bitartean, aske gelditzea, baldintzapeko askatasunean edo behar den moduan, eta, ahal dela, etxean. Ezinezkoa balitz, Euskal Herriko edo Espainiako kartzela batera ekartzea, senideak eta lagunak bisitan joan ahal izateko. Eta hori ere posible ez balitz, gutxienetik kartzelan dituen neurriak malgutzea, batez ere komunikazioei dagokienez. Hori giza eskubideak errespetatzea deitzen zaio.

**A.I.Z.**



### **Maria Agustina Txurruka Zubiaurre**

2024ko maiatzaren 10ean hil zen, 88 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Zuen keiak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Gaueko trenak "zarata handia" ateratzen dute, eta trenbide inguruko bizilagunen atsedena

**oztopatzen dute:** "Azkenaldian, tren bat baino gehiago pasatzen da gauez, eta inguru horretan bizi garenok ezin dugu atsedetik hartu. Lehen gaueko hamabiak aldera pasatzen zen tren bat, baina azkenaldian goizaldeko 04:00ak aldera pasatzen da beste bat. Legediaren arabera gauez ezin da zaratarik egin, eta kamioi handiek ere debekatuta dute gauez herriguneetan ibiltzea. Anbulantziak ere sirenarik gabe ibiltzen dira gauez. Hortaz, uste dugu gaueko tren hauek ere ezingo liratekeela ibili". BARRENEK Udalera jo du, eta Hirigintza Saitetik esan dutenez trenen kompetentzia Eusko Trenbide Sarearena da. Udalak, hala ere, gai honi buruz galdetu du Euskotrenen eta jaso duten informazioaren arabera, 04:18an pasatzen zen lehen tren bat, baina Zumaia inguruan trenbidean egin dituzten konponketen ostean, 23:47an pasatzen da azkena. Astean lau egunetan pasatzen dira tren horiek Elgoibartik, Euskotrenetik azaldu



dute, eta mantenimendurako beharrezko diren tren-makinak ere pasatu daitezkeela gauez. Era berean, zehaztu dute tren horien makinaria diesela izatetik elektriko izatera pasatu dela orain dela gutxi, eta modu horretan zarata murriztea lortu dutela.



### Txalo bat Morkaikoren bazkarian parte hartu zuten gurasoei:

"Itzulitxoa egin ostean bazkaltzera etorri ziren familietako gurasoei eskerrak eman nahi dizkiegu, bazkalostean dena batzen lagundu zutelako. Konturatu ginenerako parrokiako arkupeetako eskumako aldea dena jasota

zegoen, erratza pasatuta eta guzti! Erreleboa ziurtatua dago, eta izugarri poztu ginen". Era berean, hainbat mendizalek Morkaikoren lana txalotu dute: "Eskerrik asko horrelako egun handia antolatzeagatik. Borondatezko lan bikaina egiten duzue. Primeran irten zen dena, eta bikain pasatu genuen".





## Danobatek AEBetako Delta Wheel Truing Solutions enpresa erosi du

Trenen gurpilak mantentzeko tornuak egiten ditu Delta Wheel Truing Solutions enpresak Eskanaban duen lantegian (Michigan, Amerikako Estatu Batuak), eta enpresa hori erosi du Danobat kooperatibak. Delta Wheel Truing Solutions enpresa erosita AEBetan dituzten bezeroen behar espezifikotara egokitzea bilatzen dutela adierazi du Danobateko Trenbideen Negozio Unitateko zuzendari Oskar Uriak. Delta enpresak trenbideko gurpilak birprofilatzeko ekipoak diseinatzen eta fabrikatzen duen esperientzia handia balioan jarri du Uriak. Delta enpresako Jean R. Rossek ere onurak ikusten dizkio euren enpresa Danobatek erosi izanari. Honela esan du: "Danobat bezalako nazioarteko erreferente batekin lankidetzan aritzea jauzi kualitatibo garrantzitsua da guretzat; izan ere, gure produktu-aukera zabaldu ahal izango dugu, eta ditugun soluzioak Danobateko lokomotorara eta merkantzia-trenentzako hobi-tornuekin osatu, Estatu Batuetako tren-sektorearen beharretara egokituta".



AEBetako merkatua ezaguna da Danobatentzat, 1982tik baitaude han ezarriak. Chicago hirian egoitza bat dute, artezteko eta gogorrean torneatzeko soluzioak garatzera bideratua. Izan ere, mundu zabalean ditu Danobatek ekoizpen eta zerbitzu lantegiak: AEBetan, Alemanian, Brasilen, Erresuma Batuan, Herbehereetan, Italian, Mexikon eta Txinan.

### Maiatzeko azken zapatuko feria bihar egingo dute, datorren asteburuan Trinitate jaiak direlako

Maiatzeko azken zapatuko feriak Trinitate jaietako azoka bereziarekin bat egin du egutegian, eta antolatzaileek astebetetz aurreratzea erabaki dute. Hortaz, bihar egingo dute. Goizean goizetik Elgoibarko baserrietako

produktuak eta Artaldekoen artisau lanak erosteko aukera izango da Kalebarrenen. 11:00etatik aurrera txosna zabalduko du Atabal elkarteak, eta eguerdian umeentzako tailerrak izango dira.



### Palestinari babesa erakusteko elkarretaratzea egin dute

Hainbat herritarrek elkarretaratze isila egin zuten zapatu eguerdian Kalegoen plazan, Palestinari babesa adierazteko. Txalo zaparrada batekin amaitu zuten ekitaldia.

# Zientziak hartuko du bihar Lekueder parkea



Zientzia azokaren hirugarren edizioa antolatu du biharko Elgoibarko Udalak, Jaurlaritzaren eta Elhuyarrekin lankidetzan, Elgoibarko umeek zientziaren eta teknologiarenean arloan lantzen dituzten proiektuak herriari erakusteko, eta baita ere, zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotutako balioak sustatzeko eta kultura zientifikoa handitzeko. 11:00etatik 14:00etara egingo dute azoka, eta 30 postu jarriko dituzte Lekueder parkean, Elgoibarko ikastetxeetako ikasleen proiektuekin eta Bizilabe ekimenean parte hartzen duten haurren lanekin. Horrez gain, robotika ikastaroko ikasleen lanen postuak, stand profesionalak eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eta unibertsitateen postuak ere egongo dira. Hauek izango dira partaideak: Elgoibar BHI, Elgoibar Ikastola, Elgoibarko Herri Eskola, IMH Campus, Meka LHI, Makina Erremintaren Museoa, Bizilabe, Robotika Dibertigarria, Danobatgroup eta Somabe Makina Bereziak.

## Bizipen zientifikoak aukeran

Bizipen zientifiko desberdinak izango dira aukeran eta HH2tik aurrerako umeek tailerretan parte hartzeko aukera izango dute. Horretarako izena beharko dute informazio gunean, 10:30etik 12:45era.

**1 TXIKITXOKOA (HH2-HH5):** Materia ezberdinez hornitutako bandeja esperimentalak, jolas heuristikoen gunea eta argi mahaiekin esperimentatzeko gela ilun bat egongo dira.

**2 MEKANISMO ETA MAKINA ERRAZAK (HH5 - LH1):** Mugimenduak sortzeko moduak aztertuko dituzte: dantzarien lehiaketa, gimnasio batean pisuak altxatzea, baloia saskiratzea, autoen lasterketa...

**3 CODING SCHOOL PROGRAMAZIOA (LH1 - LH2):** Programatzen ikasteko jolasgunea. Aukeratutako pertsonaiek beren helburura iristeko beharrezko mugimenduak egin beharko dituzte.

**4 ANIMALIEN LASTERKETA (LH2 - LH3):** Animalia batzuk muntatuko dituzte, eta, sentsoreen bidez, mugimenduan jarriko dituzte.

**5 IKASTETXE BATEKO SUTE BATEN SIMULAZIOA (LH3 - LH4):** Eszena landuko dute, eta pertsonaiak eta objektuak programatuko dituzte, sutearen aurrean ikastetxea husteko lanak edo mugimenduak egin ditzaten.

## 6 ERRONKA TEKNOLOGIKOA:

**ILARGI-EGITURA (LH1 - LH3):** Ilargi-egitura bat sortu beharko dute parte-hartzaileek, altuera batetik botatzean, zutik eroriko dena.

**7 ZIANOTIPIA (LH4 - DBH1):** Argazkiak inprimatzeko aspaldiko teknika erabiltzen ikasiko dute.

**8 HARRAPATU TXINPARTAK (LH1 - LH3):** Elektrizitatearekin esperimentatuko dute.

## 9 GINKANA ZIENTIFIKOA

Zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten hainbat proba gauditu beharko dituzte, ginkanaren hitz ezkutua aurkitu eta garaipena lortzeko.

## Herri Eskolako patioan itxitura berriak eraikitzeko lanak lizitaziora atera dituzte



**H**erri Eskolako patioan itxitura berriak eraikitzeko lanak lizitaziora atera ditu Elgoibarko Udalak. Proiektuak 206.672,76 euroko aurrekontua dauka, eta obrak amaitzeko epea bi hilabetekoa da. Egungo estalkia 2010ekoa da. Metalezko egitura da eta aurrealdeko eta goiko itxiturak dituen estalkia du, polikarbonatozko plakekin konbinatutako txapa metalikozkoa. Ez du alboko itxiturarik eguraldi txarretik babesteko. Horren ondorioz, euria egiten duenean, joko-zelaiaren zati handi bat busti egiten da, erabilera zailduz.

### Bigarren eskuko azoka antolatu du Elgoibarko Gaztelekuak

Elgoibarko Udal Gaztelekuak bigarren eskuko azoka antolatu du, Udalarekin elkarlanean, gazteen autogestio eta partaidetza proiektu baten barruan. 2010ean jaiotako 36 nerabe ari dira ekimen hau egiten udako egonaldia finantzatzeko. Maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean egingo dute azoka Kalegoen plazan, baina horretarako materiala biltzen ari dira egunotan. Jostailuak, liburuak eta jantziak bilduko dituzte. Nahi duenak gaur arratsaldean ere izango du materiala emateko aukera, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Kultur Etxeko sotoan.

### Elgoibarko museoak zabalik bihar, Museoen Nazioarteko Egunean

Elgoibarko Udalak bat egin du Museoen Nazioarteko Egunarekin, eta ondorioz, herriko museoak bisitatzeko aukera egongo da bihar, doan. Makina Erremintaren Museoak, Fossil eta Mineralen Museoak (MUFOMI) eta Hezur Museoak hartuko dute parte. 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 19:00etara egongo dira zabalik hirurak, eta museoetako langileak prest egongo dira galderak erantzuteko eta informazio orokorra emateko.

### Debegesaren deialdi irekia bailarako artistei, Gure Balioak sarietarako garaikur berria sortzeko

Gure Balioak sarietan Bizitza osoko ibilbidea kategorian eman ohi duen sari fisikoa aldatu egingo du aurten Debegesak, eta berria aukeratzeko, eskualdeko artistei zuzendutako deialdi irekia egin du, hala nahi duten artistek euren piezak aurkeztu ditzaten. Hautagaitzak aurkezteko epea maiatzaren 24ra arte dago zabalik. Lanak aurkezteko bete beharreko jarraibideak eta puntuatzeko erabiliko diren irizpideak ezagutu nahi izanez gero, [debegesa.eus](http://debegesa.eus) webgunea kontsultatu behar da.

### Hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak datozen egunetarako dituen ekintzen berri eman du. Martitzenean Azpeititik Zumaiara egingo dute txangoa. Bidean hamarretakoa egingo dute, eta Zumaiara bazkaria. 08:30ean joango dira Azpeitira autobusez, eta trenaz itzuliko dira arratsaldean, Zumaiatik. Maiatzaren 22 eta 23an lehen sorospen ikastaroa egingo dute, euskaraz. Gurutze Gorriko boluntarioek emango dute, 16:00etatik aurrera. Hilaren 24an, Elgoibarko zuhaitzak ezagutzeko ibilbide gidatua egingo dute, Andoni Segundorekin, 10:00etatik 12:30era. Azkenik, maiatzaren 27tik 31ra Salamancara eta La Albercara bidaiara egingo dute, eta oraindik hamar lagunentzako lekua dutela jakinarazi dute. Ekintzei buruzko informazio gehiago Jubilatuen Biltokian bertan eskuratu daiteke.



## Herriko espazio publikoak berrantolatzeko proposamena aztertu dute Mendaron herritarrekin

Projekta Urbes enpresako Miren Vives eta Patxi Galarraga arkitektoek gidatuta, espazio publikoen erabilera eta herritarren beharrianak aztertzeko prozesua hasi du Mendaroko Udalak. Hasiera batean proiektuaren nondik norakoak azaltzeko hiru aurkezpen-saio eta proposamenak jasotzeko talde-bilera bat izango zirela zabaldu zuten, baina azkenean, lau izan dira aurkezpen-saioak. Talde-bilera martitzenean egin zuten, udaletxean, eta hogeita bost lagun elkartu ziren Projekta Urbes enpresakoek Mendaroko sei gunetarako egindako proposamen-zirriborroaren inguruan hausnartzeko. Aniztasuna, autonomia eta eguneroko bizimodua edo zaintza erdigunean jarrita, Mendarozabal eta Azpilgoeta auzoetarako, Ikastola ingururako, Herriko Enparantzarako, Garagartzan San Agustín ingururako, eta Aranerrekarako oharrak ekarri zituzten arkitektoek, sei fitxatan, eta



haiek balioetsi, baztertu eta zuzendu edo egokitu zituzten herritarrek, taldeka. Bileran hitz egindako guztia jaso, proposamen formatua eman eta galdetegi bat sortzeko konpromisoa hartu dute orain Projekta Urbesekoek, herritarrei itzuli eta haien iritziak jasotzeko. Irailean, beste lanketa saio bat egingo dute gero, bildutako ekarpen guztien inguruan aritzeko.

### Mendaroko Agarre leizea bisitatzeko aukera emango diete EHUK, Suharri elkarteak eta Udalak sei mendaroarri

Agarre leizea bisitatu nahi duten mendaroarrek orain dute aukera. Euskal Herriko Unibertsitateak, Mendaroko Suharri elkarteak eta Udalak ekainaren 7an Agarre leizera egingo den bisita batean parte hartzeko aukera zabaldu diete herritarrei. Leizearen beraren ezaugarriak kontuan hartuta, baina, gehienez sei lagunentzako lekua izango dela zehaztu dute eta horregatik interesa duten guztiei izena emateko

eskatu diete, eta ondoren, apuntatzen diren guztien artean zozketa egingo dute. Izena eman nahi duenak maiatzaren 26ra arteko epea dauka horretarako, zozketa maiatzaren 27an egingo dutelako. Izena emateko bi bide daude: posta elektronikoz [kultura@mendaro.eus](mailto:kultura@mendaro.eus) helbidera mezua bidalita edota bestela udaletxean, aurrez aurre, Kultura Sailera jota. Bisita ekainaren 7an izango da, 16:00etatik 17:00etara bitartean.

### Umeen Egunerako eta Nerabeen Egunerako kamisetak sortzeko bi lehiaketa, Elgoibarren

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak Sailak, Egur arte tailerrak eta Elgoibarko Udalak sanbartolomeetako Umeen Egunerako eta Nerabeen Egunerako kamisetetako irudia sortzeko bi lehiaketa antolatu dituzte. Irudiak trazoa bakarrik izan beharko du, betegarririk gabe, eta ekainaren 7rako aurkeztu beharko dira lanak [aisia@elgoibarkoizarra.eus](mailto:aisia@elgoibarkoizarra.eus) helbidera bidalita

edota Elgoibarko Izarraren bulegora ekarrita (Aita Agirre kulturegunea, 3, 3 ezkerre). Elgoibarren eskolaratutakoentzat da lehiaketa. LH1etik LH6ra bitarteko ikasleek parte hartu ahal izango dute Umeen Egunerako kamiseta lehiaketan eta Umeen Eguna irudikatu beharko dute beren lanetan, eta DBH1etik DBH4a arteko ikasleen lanak hartuko dituzte Nerabeen Eguneke lehiaketan.

# Elgoibar galako jantzi da Euskal Herriko Itzulia hartzeko

✍️ Ainar Argoitia   🚲 Asier Orbea / Ainhoa Andonegi / Ainar Argoitia



**Itzulia irabazteko faborito nagusia zen aurten Demi Vollering (Sd Worx), eta ez zuen hutsik egin. Hiru etapa izan ditu emakumezkoen Euskal Herriko Itzulia, eta Elgoibarren bukatu zen estreinakoa joan zen barikuan. Sekulako ikusmina sortu zuen lasterketak. Eskola-umeak kalera irten ziren eskola-ordutan, haientzako prestatu zituzten jolasetan eta dantzetan parte hartzera batzuk eta etaparen amaiera ikustera gainerakoak. Elgoibar Sasoian taldekoak ere Lekuederren aritu ziren taldean ariketa fisikoa egiten, eta jendetza batu zen etaparen amaiera zuzenean ikusteko. Ezohiko itxura hartu zuen barikuan Elgoibarrek. Herriko bazter asko txirrindulari taldeentzako eta lasterketaren antolakuntzan lanean ari zirentzako gorde zituen Udalak, eta erdigunea hesitu zuten antolatzaileek, emakumezkoen tropeleko munduko txirrindulari onenak hartzeko.**

**B**erezia izan zen sortu zen giroa. Kirol alorrean, etapa Mischa Bredewolde herbeherearrak (SD Worx Prottime) irabazi zuen, espreinean. Itziariko mendatea jaitsi eta helmugarako hamazazpi bat kilometro falta zirenean harrapatu zuen tropeleko talde nagusiak ihesean zihoan bikotea, Stine Dale (Coop Repsol) eta Valentina Cavallar (Arkea-B&B Hotels Women), eta handik helmugara artekoa elkarrekin egin zuten. Tropeleko talde nagusiaren buruan zen Demi Vollering (Sd Worx), Itzulia irabazteko hautagai nagusia, eta hark zuzendu zuen taldea helmugara artekoan. Berak tiratu zuen tropela, eta ondo baliatu zuen lagunak egindako lana haren taldekide Mischa Bredewoldek, azken errematea emateko. 2018an, kamioi batek harrapatu eta larri egon zen Bredewolde, baina sasoi beteko dagoela erakutsi zuen Itzulian. Izan ere, hiru etapatik bi irabazi zituen, Elgoibarkoa eta bigarrena, Basaurin

amaitu zena, eta sailkapen nagusian, bigarren egin zuen, Demi Volleringen atzetik. Podiumeko hirugarren koska Juwliette Labousentzako izan zen.

## Harrobiko txirrindulariak, gustura

Erreferente dituztenak gertu izatea beti izaten da gauza handia harrobiko kirolarientzat, eta Elgoibarko Lagun Taldekoek ere egun berezia izan zuten barikua, gaur emakumezkoen txirrindularitzan punta-puntan dabiltzanen ondoan egoteko aukera eman zielako antolakuntzak. Podiumera igo zituzten lehenengo, eta ondoren, Laboral Kutxako autobusa ikusteko aukera ere eman zieten. Besa eta Laboral Kutxa dira Elgoibarko Lagun Taldearen babesleak, eta haien eskutik iritsi zitzaizen pribilegioa. Laboral Kutxako mekanikari batek eman zizkien azalpenak, eta Ane Santesteban, Usoa Ostolaza eta Deborah Silvestrirek argazkiak egin zituzten.

















## MENDIA ETA FESTA, BAT EGINDA

👤 Ainhoa Andonegi / Asier Orbea

Elgoibar inguruko mendiak mendizalez bete ziren zapatuan Morkaikoren Egunean. Ia 600 lagunek hartu zuten parte Elgoibarko Mendi Itzulian eta Itzulitxoan, eta 240 lagun inguruk bazkaldu zuten elkarrekin, parrokiako arkupeetan. Finalisten Egunean 82 umek jaso zuten aitortza azken urtebetean egindako mendi kopuruaren arabera, baina oraingoan modu sinbolikoan jaso zuten saria, dominak ez zirelako garaiz iritsi. Arratsaldean jarraitu zuten errekonozimendu eta omenaldiek. Emakume mendizaleen ahalduntze lanean egindako lanagatik omendu zuten Txitxibilaldiak taldea. Maialen Gurrutxaga alkateak eskerrak eman zizkien ibilbide horretan egindako lanagatik, eta makila bana jaso zuten opari. Erraldoien topaketarekin bat egin zuen omenaldiak, eta Arantza Aginako eta Jon Lizarralde erraldoiek dantza egin zieten, eskerrak emateko. Egun borobila izan zen zapatukoa. Argazki gehiago eta bideoak: [barren.eus](http://barren.eus)

















## Espainiako Kopa zaleen aurrean irabazi du June Loidik Bera Bera taldearekin



**B**era Bera eskubaloi taldeak bigarren urtez jarraian irabazi du Espainiako Kopa, baina garaipen hau zapore gozoagokoa izan dute, zaleen aurrean lortu dutelako, Illunben. Gainera, duela bi urteko arantza kendu dute, 2022an ere Illunben jokatu baitzuten Kopako azken fasea, baina orduan ez zutelako finalerako sailkatzerik lortu. Hortaz, iaz Malagan Kopa irabazia bazuten ere, zaleen aurrean kopa altxatzeko gogoia zuten. Eta lortu dute.

Bera Berak zortzigarrenez irabazi du Espainiako Kopa. Final-laurdenetako eta finalerdietako kanporaketak nagusitasunez gainditu ostean, finalean ere garaipen argia lortu zuen Aula Valladolid taldeari 32-24 irabazita. 4.200 lagun baino gehiago batu ziren Illunben finala zuzenean ikusteko. Bera Bera taldearekin lortzen duen laugarren titulua da honakoa June Loidirentzat. 2021eko udan batu zen taldera eta gaur arte Liga txapelketa bat (2022), Espainiako Kopa (2023 eta 2024) eta Superkopako titulu bat eskuratu ditu.



### Espainiako erreginaren kopako finala ikusteko pantaila

Espainiako Erreginaren Kopa jokatu dute Bartzelonak eta Realak maiatzaren 18an, Zaragozako Romareda futbol zelaian, eta Mendaroko Udalaren eta Arno Guraso Elkartearen ekimenez pantaila jarriko dute Mendaron partida ikusteko, udaletxeko arkupeetan. 19:00etan hasiko da finala.

### Alavesek 3-1 irabazi dio Realari Mintxetan jokatutako lagunarteko partida

Emakumeen kirolaren hilabetea izan da maiatza Elgoibarren, besteak beste Itzuliaren etapa amaierarekin eta Txitxibilaldiak taldekoei eginitako omenaldiarekin. Era berean, kirolean genero-berdintasuna sustatzeko ahaleginaren barruan, emakumezkoen bigarren mailan diharduen Realak eta lehen mailan diharduen Alavesek lagunarteko partida jokatu zuten domekan, Mintxetan. Arabarrek irabazi zuten partida, 3-1eko emaitzarekin.



## Elgoibar Ikastolako ikasleek irabazi dute 'Euskararen Baloia' lehiaketa



**E**ibarko, Ermuko eta Elgoibarko hamar ikastetxetako 400 haur baino gehiagok hartu dute parte S.D. Eibar Fundazioak sustatu duen *Euskararen Baloia* ekimenaren laugarren edizioan. Aurten lehiaketa bat ere egin dute estreinakoz eta Ikastetxe bakoitzak 'euskara eta kirola' gaiari buruzko proiektu bat aurkeztu behar zuten aukeratzen zuten modalitate artistikoan (antzerkia, abestia, dantza, ipuin kontaketa, etab.), gehenez ere bost minutukoa. Ikasleek urtarrilean aurkeztu zituzten proiektuak, eta

Ikastolako LHko 3. mailakoek bertso sorta bat aurkeztu zuten lehiaketara. Epaimahaiak irabazleen berri eman du orain: Elgoibarko Ikastolak irabazi du lehen saria eta Aldatze ikastetxeak bigarrenkoa. Honakoa da lehen saria: Elgoibarko ikasleek Eibarko jokalarien autobusean Atxabalpeko entrenamendura bisita egingo dute maiatzaren 22an, eta joan-etorria Pantxika maskotarekin egingo dute gainera. Entrenamendua ikusi ostean, gizonetzkoen taldeko jokalariekin argazkia aterako dute.

### Eneko Etxaniz txapelkun eta Julen Dobarro hirugarren Euskal Herriko Txapelketan



Kanpezu-Ioar Mendi Maratoi Erdiarekin batera egin du aurten bere urteko txapelketa Euskal Mendi Federazioak (EMF). Hala, Kodeseke mendilerroan lehiatu ziren kategoría desberdinetako mendi lasterkariak, maiatzaren 12an. 26,5 eta 13,5 kilometroko lasterketak jokatzen dituzte Kanpezuko proban, eta motzenez banatu zituzten jubenilen eta juniorren dominak txapelketaren barruan. Jubenil gizonetzkoen mailan, Eneko Etxaniz (CATT Morkaiko) elgoibartarrak eskuratu zuen urrezko domina, eta Julen Dobarro (CATT Morkaiko) mendaroarra sailkatu zen hirugarren postuan. Morkaiko ordezkatu zuen Martin Egizabal elgetarrak ere lortu zuen podiumera igotzea; txapelkunordea izan zen junior mailan.

### Oiartzun Kopako finalerdiak jokatuko dituzte Elgoibarren

Kadete mailako Gipuzkoako Oiartzun Kopako bi finalerdiak jokatuko dituzte, zapatuan, Olaizaga kiroldegian. Etxeko taldeak, Salento Gelatik jokatuko du aurreneko finalerdia, 13:00etan, eta Zarautz izango dute aurkari finalerako bidean.

Bigarren finalerdia Orioko eta Bera Berako taldeek jokatuko dute, 16:00etan. Domekan, berriz, kadete kategoriako Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioen arteko norgehiagokak jokatuko dituzte IMH kiroldegian: 16:30an neskena, eta 18:15 mutilena.



## Idotorbeko tiraldira sailkapen nagusiko aurreneko postuetan iritsiko dira bolari elgoibartarrak

Idotorbeko bolatokian jokatuko dute bihar, hilak 18, Gipuzkoako Hiru Txirlo bola-joko txapelketako bederatzigarren jardunaldia, 17:00etan. Joan zen zapatuan jokatu zuten zortzigarrena, Soraluzeako San Andres auzoan. Adin ezberdineko 60 bolari baino gehiago elkartu ziren eta Asola Berri taldeko Garikoitz Rodriguez eibartarra gailendu zen, 5 txirlo botata. Bi bolari elgoibartar lehen seiren artean sailkatu ziren, Aitziber Olaizola eta Angel Ibarluzea, hain justu ere. Azken asteetan sailkapen nagusian gora egin dute San Miguel taldeko bolariak, eta une honetan aurreneko bosten artean daude Angel Ibarluzea eta Unai Loiola, Santos Muñoz liderrarekiko aldea murriztu eta gero.



### Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketa irabazi du Elgoibarko Lagun Taldeko infantilen taldeak



Alebin eta infantil mailako txirrindularientzako Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketa jokatu zuten, zapatuan, Zumaian, eta infantiletan Elgoibarko Lagun Taldekoek irabazi zuten. Gutxienez hiru eta gehienez bost laguneko taldeak osatu behar zituzten klubek erlojupekorako, eta ekipo bakoitzeko hirugarrenak markatzen zuen helmugan denbora. Elgoibarko Lagun Taldeko infantilen mailako taldea Xabier Barrueta eta Eneko Lameiras eibartarrek, Enaitz Iraolagoitia eta Oier Arriola mendarorrek eta Danel Garaizabal elgoibartarrak osatu zuten,

eta ezin hobeto moldatu ziren txirrindulari gazteak. Bi kilometro pasatxoko zirkuituari bosna itzuli eman behar zioten txirrindulariek, eta 15 minutu eta 41 segundo behar izan zituen Elgoibarko taldeak. Bederatzi segundotako aldea kendu zioten bigarrenari, oñatiarrei. Baina infantiletan bakarrik ez. Alebinetan ere podiumera igo ziren Elgoibarko Lagun Taldeko txirrindulariak. Irati Ansoa eta June Iraolagoitiak Danena taldeko txirrindulari batekin osatu zuten erlojupekorako taldea, eta bigarren sailkatu ziren.

## || Topaketa erraldoia



**E**rraldioen topaketa egin zuten zapatuan Elgoibarren, hirugarrenegoz, eta aurreko edizioetan moduan, erraldioen dantzek eta buruhandien korrikaldiek giro ederra sortu zuten herriko kaleetan. Goiz guztian giro eguzkitsua eta beroa egin zuen, baina lainotzen hasi zen zerua eta topaketa hastearekin bat erori ziren lehen euri tantak, iragarrita zegoen moduan. Ekaitzaren mehatxupearan egin zuten konpartsek Kalegoen Plazatik Maalara arteko bidea, eta Maalako parkeko aterpean sartzeaz bat entzun ziren lehenengo trumoiak. Gogotik egin zuen euria hortik aurrera, beraz, Maalako parkeko estalpean egin zuten dantza erraldoiek. Aurtengo topaketan lau konpartsa izan dira protagonistak: Iruñeko Alde Zaharreko erraldoiak, Txantreakoak, Bergarakoak eta Elgoibarkoak. Lehenengo, banan-banan egin zuen dantza konpartsa bakoitzak bere musikarien erritmora. Elgoibarko erraldioen gidaria Mauxitxa txaranga izan zen, eta herritarren artean ezagunak diren hainbat doinu jo zituzten. Buruhandiak eta zezenzikletak ere irten ziren kalera, umeen gozamenerako. Azkenik erraldoi denek batera dantzatu zituzten hainbat kanta, tartean, ume guztien artean ezagunak diren *Polonesa* eta *Alemana*. Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)





## Aizkoltxori buruzko hitzaldi batek hasiko du Mendaron arkeologiari buruzko hitzaldi-zikloa

Suhari kultur elkarteak eta Euskal Herriko unibertsitateak antolatu dute hitzaldi-zikloa, Mendaroko Udalaren laguntzarekin, eta maiatzaren 24an emango du Dani Ruizek zikloko lehenengo hitzaldia, *Ehiztari, biltzaile eta artistak orain dela 15.000 urteko Aizkoltxon* izenburukoa. Udaletxeko udalbatza aretoan izango da, 19:00etan hasita. Dani Ruiz doktoratu aurreko ikertzailea da EHUko Historiaurreko Ikerketa Talde Finkatuan (GIZAPRE) eta Aranzadi Zientzia Elkartearen. Goi Paleolitoaren amaierako industria litikoaz ari da tesia egiten eta azken zortzi urteotan burubelarri aritu da Aizkoltxon indusketa arkeologikoak egiten. Euskaraz emango du hitzaldia.



Bigarren hitzaldia, maiatzaren 31rako iragarri dute, eta ekainaren 7rako hirugarrena eta azkena. Hiru hitzaldiak leku eta ordutegi berean izango dira.

### 60 bat lagunek parte hartu dute Mendaron buruarinak sortzeko tailerlean



Mendaroko Konparsa taldeak buruarinak sortzeko tailerra antolatu zuen joan zen barikurako, Udalaren laguntzarekin, eta 60 bat lagunek parte hartu zuten: 30 umek eta beste horrenbeste gurasok. Ipuitantikoek gidatu zuten tailerra eta bi orduko tartean askotariko buruarinak sortu zituzten artista gazteek, gurasoek lagunduta: azenarioak, porruak, tomateak, ananak, piratak, intsusu beltzak, deabru beltzak, tartalo eta pailazoak... Horietako zenbait San Joan bezperan egingo duten akelarrean erabili asmo dituzte orain.

### Gazta Eguna ospatuko dute Mendaron, domekan

Gazta Eguna antolatu du Mendaroko Udalak etzirako. Goienetxe, Egotza, Axeleku eta Mausitxa gaztagileen gaztak eta Mendaroko Ospas eta Ertate baserrietako sagardoa egongo da dastagai. 2 euroan, lau gazta zati dastatu ahal izango dira, eta 5 euroan, bi sagardo trago edan eta lau gazta zati dastatu. Artisauen postuak ere egongo dira.

### Dultzaineroen diana eta Udal Musika Bandaren kontzertua, etzi, Elgoibarren

Dultzaineroek diana joko dute domekan Elgoibarren kalez kale, 09:00etan hasita, eta 12:30ean, Elgoibarko Udal Musika Bandakoek kontzertua emango dute Herriko Antzokian. Gorka Mujikak zuzenduko du kontzertua eta bederatzi pieza interpretatuko dituzte. Agendan duzue egitarau osoa.

## Hilaren 31 arte luzatu dute greba Elgoibarren Herriko Antzokiko langileek

Aisilan XXI enpresarentzako lan egiten duten Herriko Antzokiko langileek greba maiatzaren 31a arte luzatzea erabaki dute, eta ondorioz bertan behera gelditu dira gaurko iragarria zegoen Amoranteren kontzertua eta maiatzaren 31n Taupada antzerki taldekoek egitekoa zuten emanaldia.

Apirilaren 11n hasi zuten greba Aisilan enpresarentzako lanean ari diren sei langileek eta hirugarrenegoz luzatu dute, enpresak euren eskaerak aintzat hartzen ez dituelako. Lan gatazka honen inguruan, atzera begirakoa egin du ELAk orain. Gogorarazi du iaz ere grebara jo zutela langileek "prekarietatea amaitzeko". 2016tik soldatak izoztuta zituztela salatu zuten, besteak beste. Haien eskaeren artean zeuden, bereziki, eros ahalmena berreskuratzea, jaiegun eta gaueko plusak jartzea, aintzinekotasuna



aitortzea, gaixotasun baje konplementazioa, partzialtasuna ahal den azkarren amaitzeko konpromisoa hartzea eta langileen subrogatzea. Greba hura akordio batekin amaitu zuten, eta han jasotakoa urtarrean sartzen zen berez indarrean, baina arazoak bere horretan jarraitzen du. Enpresak dio ezin duela hitzarmena bete eta Udalarari egozten dio ardura. ELAk salatu du ez duela eta ezta enpresak ere ez dietela bilera eskaerei erantzuten. Sindikatutik nabarmendu dute Udala dela zerbitzu hori azpikontratatu zuena eta berea dela zerbitzua eta lan baldintzak bermatzearen ardura, eta bestetik, enpresari gogorarazi diote akordioa betetzea dagokiola.

## Jon Lizarralde eta Arantza Aginako dantza irakasleak omendu dituzte dantzari bakarlarrien emanaldian



Aurreku txapelketetan aurten parte hartu duten edo aurrez ibiliak diren bederatzi dantzari dantza erakustaldia egin zuten joan zen barikuan Kalegoen plazan, eta ekitaldia Jon Lizarralde eta Arantza Aginako dantza irakasleak omentzeko baliatu zuten Haritz Euskal Dantzari Taldekoek.

Ekitaldian, Jon Lizarralde azaldu zuen 25 urte bete direla aurten Elgoibarko dantzariak



txapelketetan parte hartzen hasi zirenetik, eta eskerrak eman zizkien urte hauetan guztietan bidelagun izan dituzten guztiei: dantzari beraiei, txistulariei, musika eskolako arduradunei, Haritz dantza taldekoei eta bereziki beti ondoan izan dituen Arantza Aginako, Rafa Iturrino eta Iera Larrañagari. Ekitaldiaren amaieran, Agurra dantzatu zieten dantzari Jon Lizarralde eta Arantza Aginakori.



## Astehenean dituzte hastekoak Mendaron Santa Ana ermita konpontzeko lanak

**M**endaroko Udaletik jakinarazi dute astehenean hasiko dituztela Santa Ana basiliza konpontzeko lanak. Egurki enpresak egingo ditu lanak eta ekain amaierarako amaitzea aurreikusten dute. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Sailak ezarritako baldintzak betez egingo dituzte lanok, eta 45.700 euro inguruko aurrekontua izango dute (BEZ barne). Gipuzkoako Foru Aldundiak Babestutako Ondarea Birgaitzeko dirulaguntzetarako eskaera egin du Udalak, Gotzaitegiarekin 30 urterako lagapen akordioa sinatuta, eta hortik inbertsioaren zati bat berreskuratzea espero du Udalak.




---

### **Musika Gaua izeneko kontzertua iragarri du Inazio Bereziartua musika eskolak maiatzaren 24rako, musika eskolaren 40. urtemugako ekintzen barruan**

1984ko maiatzean sortu zuen guraso talde batek Inazio Bereziartua Musika Eskola. 300 ikasle eta 13 irakaslerekin hasi zuen ibilbidea eta 40 urte bete ditu aurten, osasun beteko. Gaur egun 600 bat ikasle ditu, eta irakasle kopurua ere bikoiztu egin da: 25. Garaiak ere aldatu dira 40 urtean, eta etengabeko berrikuntzan jarraitzen du musika eskolak, herrigintzan eta kulturagintzan erreferente izaten. Urteurrena gogorarazteko, maiatzean zehar burutu dituzten eta egitekoak dituzten ekintza guztien berri eman dute. Urteroko ekintzak dira denak, baina bada bat formato berrian emango dutena: maiatzaren 24rako iragarri duten Musika Gaua kontzertua. Orain arte musika eskolako beste kontzertu bat izaten zena eta astebarruan

egiten zutena, Maalara eramango dute, gaez. Musika eskolako rock taldeak zabalduko du kontzertua eta lau pieza joko dituzte. Ondoren, beste zortzi kantu interpretatuko dituzte musika eskolako ikasleek Big Band formatoan. Betsua txarangari sekzio ritmiko bat (bateria bat, baxua, bi piano eta gitarra) gehituko diote horretarako, eta bi kantutan bakarlariek ere parte hartuko dute: batean, Maite Marquez mendaroarrak eta bestean, Kitziki musika taldeko bi kidek eta hirugarren abeslari batek.

Bestalde, datorren egunean Pintxoconcert ekimena egingo dute, eta kontzertuak emango dituzte herriko hainbat txokotan, besteak beste, Lekuederren, Kalegoen plazan eta Aita Agirren.

---

### **'Ni naiz naizena' argazki erakusketa antolatu dute LGTBI+fobiaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira**

*Ni naiz naizena* argazki eta webserie erakusketa antolatu du Elgoibarko Udalak, Gehitu eta Mugen Gaintetik elkarrekin batera, gaur LGTBI+fobiaren kontrako nazioarteko eguna delako. Maiatzaren 17tik 26ra egongo da ikusgai Kultur Kafean. Nere Falagan eta Eduardo Gaviñaren (Yogurinha Borova) testigantzak

erakusten dituen argazkak biltzen ditu erakusketak, eta irudietan parte-hartzaileen nortasuna islatzen da, haien keinuen, jarreraren eta gorputz-adierazpenaren bidez. Lagin hau izen bereko webseriean oinarritzen da, eta trans pertsonen egunero izaten dituzten esperientziak eta erronkak kontatzen ditu.



Aste honetako erretratu zaharra Txomin Mujikak ekarri du BARRENERA. Joan zen zapatuan ospatu genuen Elgoibarren Morkaikoren Eguna, eta garai hartan nola ospatzen zuten erakusten duen erretratua atera du Mujikak bere artxibotik. Idotorben egiten zen orduan mendizaletasunaren jai. Goizetik igotzen ziren mendizaleak, eta han banatzen zituzten dominak. Erromeria egoten zen, eta txistulariak ere urtero joaten ziren festara. Gero bazkaria egiten zuten, eta giro bikainean pasatzen zuten eguna. Erretratu hau txistularien emanaldian ateratakoa da. Dantzan ikusten diren lau emakumezkoak hauek dira: Isabel Elorza, Miren Amaia Arrieta, Marivi Iriondo eta Arantza Larrañaga. Txistulariak, berriz, Felix Ansola *Txanbolin* (♯), Txomin Mujika eta Silvino Gabilondo (♯).



## EGOKITU UDAKO CAMPUSA

### Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola-EIBAR

Ingeniaritza - Energia Berriztagarriak ezagutu eta zure eskuekin ikutu nahi badituzu, hau da aukera!!

Uztailak 1-5 (9-14 orduak). Izena emateko epea: maiatzak 24





**LANA**

**Eskaerak**

Sara daukat izena, eta adinekoak zaintzen nahiz umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko garbiketa lanak egiteko ere prest. Erreferentzia onak dauzkat eta etxeko langile moduan ere egingo nuke lan.

604 855 097

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat, eta erreferentzia onak.

613 763 593

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Asteburuetan lan egiteko prest nago.

641 756 213

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut.

624 131 378

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.

697 900 991

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan nahiz orduka. Ospitaleetan zaintza lanak egiteko ere prest. Erizaina naiz lanbidez eta titulu sozionarioa daukat hemen lan egiteko.

643 505 662

Adinekoak zaintzen nahiz garbiketa lanetan arituko nintzateke, orduka.

643 505 827

Adinekoak zainduko nituzke, astean zehar orduka. Gauzez edo asteburuetan lan egiteko ere prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut.

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.

655 390 844

Adinekoak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia handia daukat, eta geriatriako hainbat ikastaro dauzkat eginak.

603 262 842

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan ere bai.

643 903 039

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, gauzez edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.

632 229 972

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Orduka edo etxeko langile moduan.

674 535 912

**Eskaintza**

Aho hortzetako higienista behar da. Berehalako kontratua eskaintzen da. Bidali cv. [hortzklinika.06@gmail.com](mailto:hortzklinika.06@gmail.com).

**GARAJEAK**


Marradun garajea erosi edo alokatuko nuke Iñigez Karkizano edo inguruko kaleetan.

688 616 714

**OSPAKIZUNAK**

1964an jaiotako en bazkaria, ekainaren 22an, Sigma jatetxean. 13:00etan elkartuko dira Foruen plazan argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, eta 14:30ean bazkaria. 70 euro sartu behar dira ekainaren 8rako Laboral Kutxan. ES28 3035 0007 26 0071144881.

  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalde de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Jakin nahi nuke jabe ez den pertsona batek edo, hala badagokio, erregistroko titular batek bete dezakeen komunitateko lehendakari kargua.</b></p> <p>Arau orokor gisa, komunitateko Gobernu Batzordeko karguak jabeek bete behar dituzte. Hala ondorioztatzen da, argi eta garbi, legea irakurrita; lehendakariaren kargua jabeen artean hautatu behar da, edo, bestela, txandaka edo zozketa bidez. Ez dira nahastu behar jabe-izaera eta erregistro-titularrak (edo titular fiskala, katastrala edo administratiboa), kontzeptu zabalagoa baita. Nahikoa litzateke eskualdaketa-kontratu pribatu bat, jabetzaren portzentai bat eskuratu ahal izateko, jabeekide gisa. Izan ere, jabearen izaera hartzen da, nahiz eta jabetza horren zatia batena baino ez izan. Kasu horretan, jabeekidetzaren egoera horrek berarekin da-kartzat jabetza baten titularrak dituen eskubide eta betebeharrak guztiak, nahiz eta, agiri pribatu bidez jabetza eskuratzean, alderdiek erabaki hori eskritura publikoan ez jasotzea eta jabetza Erregistroan inskribatzea.</p> <p><b>Ondorioa: Jurisprudentziak behin eta berriz dio jabea ez den lehendakari bat izendatzeko erabakia erabat deuseza dela. Nahikoa da jabe ez den presidenteari idatzi bat bidaltzea horren berri emanez, eta, hala badagokio, izaera hori duen komunitateko beste kide bat izendatzea lehendakari.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
---	--

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Davin!** Dagoeneko, bi urtetxo! Patxo bat, amatxoren eta aitatxoren partez.




Zorionak, **Martina,** maiatzaren 20an 6 urte beteko dituzulako. Segi horrelako neska jatorra izaten! Muxuak, familiako denon partez.



Zorionak, **Eneko,** igandean 11 urte handi beteko dituzulako. Primeran pasatuko dugu! Muxuak, familiako guztion partez.



Zorionak, **Laia,** gaur 8 urte bete dituzulako. Muxu asko tiaren, amamaren eta bereziki, Sararen partez.



Zorionak, **Asier!** Oso ondo pasatu genuen zure egunean. Muxuak, familiakoen partez.



Zorionak, **printzesa,** maiatzaren 13an 8 urte bete zenituelako. Besarkada handi bat, etxekoan partez.

# 2.ESKUKO AZOKA

## MAIATZAK 31- EKAINAK 1

**MATERIALA JASOTZEKO:**  
 MAIATZAK 16 → 17:00-20:00  
 MAIATZAK 17 → 17:00-19:00

 Kultur Etxeko sotoan.

**AZOKA**

MAIATZAK 31 → 17:00-20:00  
 EKAINAK 1 → 10:00-13:00

 Kalegoen plazan

ARROPA,  
JOSTAILUAK ETA  
LIBURUAK



**ANTOLATZAILEAK: 2010ean jaiotako nerabeak. Prozesu hezitzaileko partaideak.**

📞 943 74 32 28    📞 628 17 03 30    ✉️ gaztelekua@elgoibar.org    📷 @elgoibarkogaztelekua

## Osasun gida

  
hartz klinikak

RPS233/13  
**943 366 377**  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriando Ansola  
GIZA EUKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA  
RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22  
Eibar  
**677 551 850**

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 953 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 177/12

RPS 271/12

  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

RPS 183/12

**Uzuri**  
optika audio

Elgoibar  
**943 740 359**  
Deba  
**943 192 192**

**leku eder**  
hartz klinika  
RPS 171/12

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar  
**943 530 053**

**federópticos**

**ikus**

RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734



## 17 BARIKUA

**18:00** Erakusketa: 'Ni naiz naizena'. Kultur Kafean, tabernaren ordutegian.

**18:30 - 20:00** Errigorako produktuak jasotzea, Mendaron. Jubilatuen ondoko lokalean.

**22:30** Kontzertua: Kitzi ki musika taldea, Kultur Kafean.

## 18 ZAPATUA

**11:00** Zientzia Azoka. Lekuederren, Sustapen Ekonomikoko Sailak antolatuta.

## 19 DOMEKA

**10:00** Diana, Elgoibarko dultzaineroekin, kaleetan zehar.

**11:00 - 14:00** Gazta Eguna, Mendaron. Artisauen postuak ere egongo dira.

**12:30** Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika Urain.

1. *Pasodoble para una madre* (E. Moreno).
2. *Paisaxes Galegas* (F. J. Cogollos)
3. *Suite Galaica* (A. Alcalde)
  - *Despertar na montaña*
  - *Noite de Bruxas*
  - *Danza meiga e final*
4. La verbena de la paloma. (T. Bretón)
5. *La del soto del Parral*. (R. Soutullo).
6. *Los Gavilanes*. (J. Guerrero).
7. *Elgoibar*. (J. Silguero).

## 20 ASTELEHENA

**19:00** Epeletan literatur tailerra: Iban Zalduren 'Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak'. Idazlea bertan izango da. Gotzon Garate Udal liburutegian.

## 22 ASTEAZKENA

**17:00** Ipuin kontalaria: Izaskun Mujika. Lehen saioa LH1ekoentzat eta bigarren saioa LH2 eta LH3koentzat. Gotzon Garate Udal liburutegian.

## 23 EGUENA

**19:00** Pintxoconcert. Musika Eskolak antolatuta, herriko hainbat gunetan kontzertuak egingo dituzte: Kalebarrenen, Lekuederren, Aita Agirren...

## 24 BARIKUA

**10:00** Bisita gidatua: Udaberriko zuhaitzak. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

**18:30** Omenaldia: Mugertza krosa sei aldiz irabazi duen Belen Azpeitiari. Mintxetan.

**19:00** Hitzaldia: 'Ehiztari, biltzaile eta artistak orain dela 15.000 urteko Aizkoltxon'. Dani Ruiz arkeologoak emango du, Mendaroko Udalbatza aretoan.

**22:00** Musika Gaua. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Maalan.

## AZKEN ZAPATUKO FERIA

**Maiatzak 18, zapatua**

**09:00** Elgoibarko baserrietako eta Artalde Artisanu Taldearen produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

**11:00** Atabal danborradaren elkarteak kudeatutako txosnaren irekiera.

**12:00** Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.



Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?  
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurria.  
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,  
edozein ehun konpondu ahal izateko:

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK,  
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Komertzioekin lan egiten dugu  
(etxeko ehungintzekin eta jantziekin)  
**TARIFA BEREZIAKI!**

## Zinea

Herriko Antzokiko langileen greba dela-eta, asteburu honetan ez da zine emanaldirik egongo.

### Eta, Debabarrenean zer?

'Baso bete zientzia' jardunaldia. Maiatzak 23an, eguena, 19:00etan, Debako Kultur Elkartearen

*Baso Bete Zientzia* jardunaldiak amaitzeko hiru hitzaldi izango dira eguenean, Deban. Alde batetik, *Gure gorputzeko barne galaxia omikoa*: mikrobiota hitzaldia emango du Igor Baroja Biologia molekularrean doktoreak. Aitor Urbieta Ingeniaritza informatikoan doktoreak, berriaz, *Nola babes ditzakegu Blade Runner-eko erreplikanteak giza mehatxuen aurrian?* solasaldia emango du. Amaitzeko, *Neurtezina neurtzen: neutrinoak eta hauen detekzioa* hitzaldia emango du Mikel Elorza Fisikan doktoregaiak.

### 2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

### MAIATZA

17 BARIKUA

18 ZAPATUA

19 DOMEKA

20 ASTELEHENA

21 MARTITZENA

22 EGUAZTENA

23 EGUENA

24 BARIKUA

Yudego

■ Oruesagasti

■ Garitaonandia

■ Oruesagasti

Barrenetxea

■ Ibañez

Garitaonandia

Arriola

■ Fernandez

### 2024 urte guztian, gaeuz:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)

943 204 230

■ Fernandez:  
Herriko  
Enparantza, 4  
Garagartza  
(Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1  
(Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
943 751 384

## BARRENeko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARREN**en bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



## EXPRESS ESKAINTZAK!

VS15A60AGR5/WA

SAMSUNG

269 €

ERRATZ-XURGAGAILUA

- Kablerik gabe
- 150 W-ko Potentzia
- 40 min.-ko autonomia
- 0,8 litroko edukiera
- Inverter motor digitala
- Geruza askotariko iragazketa-sistema
- Aparteko eskuilak: Maskoten eskuila, funtzio askotariko eskuila eta errokonera



# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)


Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.





Inar  
Mendibil  
Telleria

5 urte, Elgoibar



*"Izar hori"*



Danel  
Bastida  
Villar

6 urte, Elgoibar



*"Hartz inurrijalea bere janariari begira"*

# BILATU ETA LOTU

Lotu 5 zenbakia ibilbidea markatuz zenbaki berarekin.

5 5 5 5 4 8 7  
 3 2 5 3 7 6  
 6 2 5 5 5 7 4 8  
 2 9 5 3 2 4 0 9  
 1 3 5 5 1 6 5  
 0 4 2 5 5 5

# MATEMATIKAK

Peru eta Miren eskolako lanak egiten ari dira. Jarri dagokion eragiketa ikurra (+/ -) hutsune bakoitzean:

15 ..... 2 ..... 3 = 20  
 80 ..... 70 ..... 1 = 11  
 35 ..... 5 ..... 5 = 35  
 66 ..... 26 ..... 30 = 10  
 12 ..... 12 ..... 12 = 36  
 90 ..... 10 ..... 1 = 99

# HIZKI-ZOPA

Aurki itzazu hizki-zopan hamar animalien izenak

KROKODILOA

ZALDIA

IGELA

ARDIA

KATUA

TXAKURRA

LEHOIA

BEHIA

ARRANOA

SUGEA

K	A	T	U	A	M	J	N
R	R	S	I	G	E	L	A
O	A	U	H	I	L	A	R
K	I	G	S	L	I	R	R
O	H	E	I	D	G	R	A
D	E	A	R	L	T	U	N
I	B	A	S	H	I	K	O
L	E	H	O	I	A	A	A
O	J	M	S	E	B	X	K
A	I	D	L	A	Z	T	G

# HITZAK OSATU

Ordenatu hizkiak eta fruitu bakoitzaren izena asmatu



BARRIMUA

-----



TSAHAMA

-----



DASANI

-----



MUSATSKA

-----

Erantzunak:

MASUSTAK

SANDIA

MAHATSA

MARRUBIA

Hitzak osatu:

A	I	D	L	A	Z	T	G
O	J	M	S	E	B	X	K
L	E	H	O	I	A	A	A
I	B	A	S	H	I	K	O
D	E	A	R	L	T	U	N
O	H	E	I	D	G	R	A
K	I	G	S	L	I	R	R
O	A	U	H	I	L	A	R
R	R	S	I	G	E	L	A
K	A	T	U	A	M	J	N

90 = 10 + 10 - 1 = 99  
 12 + 12 + 12 = 36  
 66 - 26 - 30 = 10  
 35 + 5 - 5 = 35  
 80 - 70 + 1 = 11  
 15 + 2 + 3 = 20

0 4 2 5 5 5  
 1 3 5 5 1 6  
 2 9 5 3 2 4 0 9  
 6 2 5 5 5 7 4 8  
 3 2 5 3 7 6  
 5 5 5 4 8 7



# G R E M I O E N G I D A



**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

**943 741 552**  
**606 431 120**

biok@biokdekorazioa.com

**IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud. Ambiental

**618 198 760**

ivan@plaganatura.eus  
www.plaganatura.eus

**AROZTEGIA**

**BIENA, S.L.**  
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8  
**943 740 512**  
fax: 943 743 565  
blendu@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasa.com  
**943 740 279**



**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**

aroztegio - altzariak - etxa-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
**943 756 112**  
**636 497 485**

www.iraolagoitia.com

**ITURGINTZA**

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea  
Elgoibar  
**943 740 530 / 605 714 905**  
santanaiturgintza@gmail.com



**AROZTEGIA**

**IMAR**  
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
**943 531 471**  
**609 054 978**  
carpinteriaimar@hotmail.com  
@carpinteria\_imar

**Gidan agertzearen onurak!**

**943 743 704**  
**688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk  
20870 ELGOIBAR

**23,82€**  
hilean

**12**  
aldiz urtean

**4.700**  
ale astero

23,82 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihatik ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.